



## **2019 MARATOI ERDIAREN ARAUDI PROBISIONALA**

### **1. ARTIKULUA – EGUNA ETA ORDUA**

Gipuzkoako Atletismo Federazioak (GAF) Fly Group enpresarekin batera, 2019ko azaroaren 24rako VII Donostiako Maratoi erdia antolatzen dute.

Irteera ordua 09.00etan izango da Errondo Pasealekuan. Ibilbidea hirian zehar izango da eta RFEAk, AIMSek eta IAFFek homologatutako 21.097 metroko luzeEra izango du. Denbora muga 2h305 izango da eta Helmuga Anoetako Mini Estadioan kokatuko da. Zirkuitoan zehar kilometro guztien kokapen zehatza nabarmendutak egongo dira. [www.zurichmaratondonostia.com](http://www.zurichmaratondonostia.com)

### **2. ARTIKULUA – PARTE HARTZEKO BALDINTZAK**

Lasterketa honetan 2001.urtean edo lehenago jaiotako edozeinek parte har dezake, edozein sexu edo herrialdetakoa izanik, federatua izan edo ez, IAAF eta RFEAko araudiak onartuz.

Froga honetan parte hartu ahal izateko ondorengo balditzetako bat bete behar da derrigorrez:

### **3. ARTIKULUA – IZEN EMATEA**

Partaide kopurua gehienez 2.500 lasterkarikoa izango da.

Izen ematea ON LINE egin daiteke [www.zurichmaratondonostia.com](http://www.zurichmaratondonostia.com) web ofizialean eta matxoaren 1etik azaroaren 21ra arte egongo dira zabalik, beti ere dortsalak geratzen diren bitartean.

Eguneko lizentzia tramitatzea derrigorrezkoa da RFEAko lizentzia nazionala, euskal lizentzia autonomikoa edo "Carnet de Corredor Plus" ez dutenentzat. Eguneko lizentzia tramitatzeko 3 euroko gehigarria ordaindu beharko da izen ematearekin batera



Izen emateen salneurriak honako hauek dira:

|                            |         |
|----------------------------|---------|
| Lehenengo 100 izen emateak | 18,50€  |
| Martxoak 2 arte            | 23,50 € |
| Apirilak 1 – irailak 15    | 27,50 € |
| Irailak 16 – azaroak 12    | 30,00 € |
| Azaroak 13tik Aurrera      | 35,50 € |

#### **4. ARTIKULUA- IZEN EMATE ITZULPENA**

Behin izen ematea eginda, ez da dirua itzuliko, ezta hurrengo edizioetarako gorde.halaber, izen ematea egiterakoan itzulera bermea kontratatzeko aukera dago, azaroak 1 arte izen ematearen 100% bueltatuz, eta hortik azaroak 18a arte, hurrengo ediziorako izen ematea gordetzeko aukera emanez. Ezinbestekoa da bermea izen ematerarekin batera egitea, eta ez beste momentu batean. Ez da diru itzulerarik egiten. Itzulera burutzeko maraton@flygroupet.com helbidera eskaera bidali beharko du izen ematearen titularra hurrengo datuak adieraziz: izen abizenak, partaidearen nortasun agiria eta izen ematearen erreferentzia.

#### **5. ARTIKULUA- DORTSALA NOIZ JASO**

Dortsala, txipa eta lasterkariaren boltsa hurrengo orduetan jasoko dira Anoetako Antonio Elorza Belodromoan.

Ostirala Azaroak 22, 17:00etatik 20:00etara  
Larunbata Azaroak 23, 10:00etatik 19:00etara

Igandea Azaroak 24, 7:00etatik 8:00etara (egun honetako zerbitzuak minimoak dira eta dortsal-txipa aurreko egunetan jasotzea gomendatzen dugu. Pertsonalki jaso ezin baduzu, hirugarren pertsona bat bidal dezakezu).

Nortasun agiria aurkeztea derrigorrezko izango da, dortsala eta txipa jasotzeko. Hirugarren pertsona bat bidali ezgero, NANren fotokopia erakutsi beharko da edo NANren argazkia mobilean.



## **6. ARTIKULUA – DORTSAL-TXIPAREN DERRIGORTASUNA**

Dortsala-txipa beharrezkoak izango da. Dortsala bularrean ikusgai eraman behar da.

## **7. ARTIKULUA- DENBORA MUGA ETA ERBIAK**

Lasterketa burutzeko denbora muga 2h30-koa da.

## **8. ARTIKULUA- DESKALIFIKATZEKO ARRAZOIAK**

Lasterkariak deskalifikatuak izango dira honako kasuetan,:

- Ezarritako kontroletatik pasatzen ez direnak.
- Ibilbide osoa burutzen ez dutenak.
- Dortsal-txiparen publizitatean aldaketak egin edo ezkututzen dituztenak
- Beste lasterkari baten dortsala edo txipa eramaten dutenak.
- Epaileen edo antolakuntzako lankideen aginduak jarraitzen ez dituztenak.
- Aurtengo edizioako dortsal-txipa ez daramatenak.
- Helmugara dortsalik gabe iristen direnak.
- Proban izena eman ez duten lasterkariak edo ofizialak ez diren ibilgailuen laguntza jasotzen dutenak.
- Ibilbidearen mapan agertzen diren hornidura postu ofizialetatik kanpo hornitzen direnak.
- Ibilgailuetatik edo beste korrikalarien hornidurak jasotzen dutenak.
- Ibilbidearen barnean haurren aulkiak edo kotxeak eramaten dituztenak.
- Haurrekin ibilbidearen barnean korrika egiten dutenak. Helmugan ere.
- Bestalde, proba jarraitu ahal izango duten ibilgailu bakarrak antolakuntzakoak izango dira, eta hauek behar bezala bereizita egongo dira.

## **9. ARTIKULUA- HORNIDURA**

Hornidura postu orokorra 5 km-tik 5 km-ra ezarriko dira, eta 2.5 km-tik 2.5 km-ra ura ipiniko da. Hornidura postu guztien kokapen zehatza ibilbidearen planoan ikusi ahal izango dira web-aren bitartez. Helmugan ere, hornidura postua ezarriko da.



## **10. ARTIKULUA – ASEGURUA**

Antolakuntzak erantzukizun zibileko aseguru bat edukiko du, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Ofizialki izena eman duten parte hartzaile guztiak istripuetarako aseguru poliza batek babestuko ditu, baina betiere lasterketaren ondorioz gertatu bada istripua. Aitzitik, ez die erantzungo ezkutuko gaixotasunen edo, zuhurtziagabetasunen, axolagabetasunen, edo legeak nahiz araudi hau ez betetzearen ondorioz sortutako arazoei. Bestalde, aseguruak ez ditu bere gain hartuko lasterketa gunera heltzeko bidean eta gunetik ateratakoan gerta litezkeen arazoak.

## **11. ARTIKULUA – OSASUN SOROSPENA**

Osasun sorospen postuak zirkuituaren puntu desberdinetan eta helmugan jarriko dira. Antolakuntzak, proba baino lehen, mediku azterketa egitea gomendatzen die lasterkariei, era berean, parte hartzaile bakoitzak bere gain hartuko du kirol ekintzak dakarren arriskua.

## **12. DOPING KONTROLA**

IAAFren arauak jarraituz, ente ofizialek aukeratutako lasterkariei (emakume nahiz gizonezkoak) doping froga egingo zaie.

Gogoan izan, doping kontrolari uko egiten diotenek lasterketatik kanpo geratuko direla. Bestalde, eskudiruzko sariren bat lortzen dutenek ezin izango dute saria jaso antolatzaileak doping kontrolaren emaitzak izan arte.

Doping kontrolaren emaitza positiboa izanez gero, kontra-analisiak egingo lirateke, eta bigarren aldiz positiboa aterako balitz, parte hartzailea inolako saririk gabe geldituko litzateke.

## **13. ARTIKULUA – SARIAK**

Maila nagusiko eta beterano mailan hiru sailkatuek, garaikurra jasoko dute. Beteranoak, frogaren egunean 40 urte baino gehiago dituztenak izango dira. Garaikurrak berdinak izango dira emakumezko nahiz gizonezkoetan.



#### **14. ARTIKULUA- SAILKAPENA**

Antolakuntzak frogaren egunean behin-behineko sailkapenak argitaratuko ditu. Hurrengo egunean sailkapen ofizialak argitaratuko dira.

Hauek epaileek alda ditzateke antolakuntzak denborak kontrolatzeko ibilbidea zehar jartzen duten kontrol pausuak berrikusi eta gero. Abenduak 16ean izango dira beraz behin betirako sailkapen ofizialak. Bertan aurreikusi ez den guztia IAAFFren araudiaren arabera aztertuko da.

#### **15. ARTIKULUA – IRUDI ESKUBIDEAK**

Parte hartzaile guztiek lasterketan izena ematen duen momentuan araudi hau onartuko dute, eta GAFri zein FLY GROUPeri baimena ematen diote, berak edo bitarteko beste entitateek partaidearen datu pertsonalen nahiz proban zehar euren irudiaren erabilera informatikoa egiteko.

Datu pertsonalen babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 lege organikoaren arabera, parte hartzaileak fitxategian jasotako datuak osorik edo partzialki aldatu ahal izango ditu. Horretarako, GAFera idatziz egin beharko du datu hauek aldatzeko eskaera. Helbidea: Kirol Etxea , Anoetako Pasealekua 5, 20014 Donostia edo Fly Group-eri, Akarregi poligonoa, partzela 12, pabellón 5.

Araudi hau RFEAk onartutakoa da.

Bertan aurreikusi ez den guztia IAAFFren araudiaren arabera aztertuko da.